

KANTEN ERLIJORIK EZA OSATU

Irakurri berri dut Kanten “La Religión dentro de los límites de la mera Razón” liburua, eta konprobatu dut lehendik ere banekiena, hau da, Kantek erlijioaren funtsa dakusala Arrazoiaren, batez ere Arrazoi horretatik derivatzen ahal diren maximo universalgarrietan. Morala da erlijioaren funtsa Kantentzat, eta ez du ikasten besterik asuntu horretan.

Azter dezagun liburu horren pasarte bat, honela dioena: “Hemos observado que , si bien una Iglesia carece de la señal de mayor peso de su verdad – a saber: la de una pretensión legítima de universalidad- cuando se funda sobre una fe revelada, la cual, en cuanto fe histórica (aunque muy extendida mediante una Escritura y asegurada así a la más tardía posteridad), no es susceptible de ninguna comunicación universal que produzca convicción, sin embargo, a causa de la necesidad natural que tienen todos los hombres de exigir siempre para los supremos conceptos y fundamentos de Razón algún *apoyo sensible*, alguna confirmación empírica o similar (a lo cual efectivamente hay que atender cuando se tiene la mira de *introducir* universalmente una fe), ha de utilizarse alguna fe eclesial histórica, que generalmente uno encuentra ya ante sí.” Kantentzat inportanteena ez da eliza bat edo beste, Kantentzat egiazkotasunik oinarritzkoena Arrazoiaren baitatik dator, nondik ateratzen ahal baitira maximo moral unibertsalgarriak. Eta

Eliza baten laguntza ikusten badu ere inportantetzat hori da jendeak eskatu egiten duelako, ez errebelazioaren historiari garrantzirik ematen diolako. Beste leku batean teorizatuko du nola errebelazio historikoa ez ezinbesteko dela berak, ilustrazioaren bururatzeari, teorizatzen duen Arrazoi garbian oinarritutako erlijioa fundatzeko. Izan ere, historiatic ateratzen ahal diren arrazoiak ez ei dira Arrazoi garbiak duen errepresentatzen ezagutza unibertsal horren mailara iristen inondik inora, arrazoi enpirikoak baitira, eta enpirikotasunatik ezin irits daiteke Arrazoi garbira. Baina jendeak, populuak eskatzen omen ditu oinarri enpirikoak, errebelazioaren historia bat daitekeena, eta horregatik erabiltzen ahal da Eliza bat, ez, berak dioenez, arrazoi nahikoa ematen duelako. Maxima moralen oinarria Arrazoi izan behar baita haren ustez, eta ez errebelazioaren historia enpiriko bat.

Beste pasarte batean honela dio: "La verdadera Religión única no contiene nada más que leyes, esto es: principios prácticos de cuya necesidad incondicionada podemos ser conscientes y que, por lo tanto, reconocemos como revelados por la Razón pura (no empíricamente)". Eta egia da ezen enpirikotasunaren bidetik sekula ez dela iristen ezagutza unibertsalera, Arrazoi garbi horretara, eta moralaren (Kantek moral asuntu hutsa dakusa erlijioa) printzipioak unibertsal bihurtzen ahal diren maximak dira, akatatu behar direnak inkondizionalki.

Kantek baina ahaztu egiten du nik sarritan azpimarratu egiten dudana, hau da, errebelazioaren historia seinaleekin lagunduta ageri dela. Juan ebangelistak mirariak definitzen ditu signo bezala, eta honela dio bere ebangelioan lehen signoaz (berak seinale deitzen du): "Bere lehen ikusgarritzko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; holatan, bere Jainko aintza agertu zuen, eta dizipuluek sinetsi zuten hartan." (Juan, 2, 11). Eta Juanek badu egiten halako ondorio erlazio bat eta afirmatzen du signo batek zer signifiktatzen duen, Jesusek eginda-

ko harek agertzen omen du Bere Jainkotasun aintzatsua. Baina signo hauetaz teologia fakultateetatik at badaiteke galdetu filosofiako fakultateetan, batez ere filosofiako fakultate katolikoe-tan (besteek barre ere egin ahal dute), eta ikertu ea zer signifi-katzen duen signo batek.

Orain daukat buruan fenomeno mirarizko bat Jesusek egi-na. Apostoluak itxita zeuden sala batean judioen beldurrez eta Jesus berpiztua agertu zitzaien, eta Tomasengana joan zen eta esan zion Bere zaurietan ikutzeko, eta sinesteko. Nola da posi-ble sala itxi batean pertsona bizidun bat sartzea?. Ezinezkoa da, eta zientzia enpirikoak inoiz ezin du esplikatu hori. Horre-tarako materiaren definizio unibertsala eduki behar da, hau da, materiaren izaera bere funtsean erabat ezagutu behar da, eza-gutza unibertsala eduki behar da, eta hortik bada posible ikus-ten halako fenomeno mirarizkoa gertatzea. Baina kosmos ma-terialaren ezagutza unibertsala ezinezkoa da inoiz zientzia ma-terialistatik (beti hobegarria delako du halako zientziak defektu hori), hala ere hor ditugu signoak, erakusten digute-nak badela halako ezagutza unibertsala Jesusen baitan, eta Ha-ren baitatik sortua da moral kristaua, oinarri unibertsala du be-raz. Nola da litekeena Kantek hori ignoratzea?. Errebelazioaren historian badugu aurkitzen berak proposatzen duen oinarri arrazoizkoa. Gertatzen da ezen halako ezagutza unibertsala zientzia enpiriko materialista orotik gain dagoela, eta baldin bada ezin izan daitekeela kosmos honetan, beraz hor ere on-dorioztatu behar dugu ezen Jesusen ezagutza unibertsal horrek erakusten digula Jesus ez dela kosmos honetakoa, eta bai kos-mos goragoko batekoa, eta bertan errege eta agintari gorena.

Kanten Arrazoi garbia ezagutza unibertsala da kosmos ma-terialarena, eta bertatik badira posible judizio sintetikoak a priori kosmos materialean, baina ezinezkoa denez inondik ino-ra zientzia materialistatik halako ezagutza Kantek ondoriozta-tzen du ezinezkoak direla judizio sintetikoak a priori kosmos material honetan. Eta Kantek ez ditu ikertzen mirariak, ez ditu

signoak ikertzen, bazter uzten ditu, populu ezjakin baten asuntua balitz bezala. Eta ez da horrela, signoek erakusten digute egia dela Jesusek zioena, hau da, Bere Erresuma ez dela kosmos honetakoa, eta garbi ere erakusten digute moral katolikoa oinarrিতua dagoela arrazoirik garbienean, unibertsaltasunatik sortua baita eta ez enpirikotasunatik. Eta kosmos material honetako historian barrena gertatua da errebelazioaren historia, eta signoen estudiotik errebelatzen zaigu kosmos material honetatik harutzago badela beste kosmos bat goragokoa, zeinean, adibidez, materiaren definizio unibertsala ezaguna den, eta hori ezin gerta daiteke kosmos honetan non materiaren definizio operatiboak baditugun baina ez materiaren definizio unibertsalik, eta materia bera misterio egiten zaigu. Jesusek baina erakusten du Berarentzat materiakoa ez dela misterio, eta bai zerbait Berak esentzialki ezagutzen duena, unibertsalki. Eta hortik ondorioztatu behar dugu ez dela kosmos honetakoa eta bai beste batekoa, hobea dena, bistan da. Zeren bertatik kosmos material hau gobernatzen ahal baita perfektuki, beronen ezagutza unibertsala baitute bertakoek. Eta kosmos material honen ezagutza unibertsala edukitzeak suposatzen du ezen teorizatua izan den Paradisua ez dela utopia kosmos goragoko hartan (desterruzko kosmos material honetan, ostera, bada utopia, eta iritsi ezina, beti bilatu behar bada ere hobetzea).

Amaitzeko, ni ikerlari bakartia naiz, eta bakardadeak denok dakigu onurarik ez duela ekartzen, ostera ere, faltak agerikoak izan daitezke bakartien hizpideetan, eta horregatik nik proposatzen dut signoen estudioa filosofiako fakultate katolikoetan, signo batek zer signifiktatzen du?, hori galdetzen ahal da halako fakultateetan, logika departamenduetan adibidez. Eta ni se-guru nago ezen Kanten beraren terminologia ere hartuz (baditu teorizazio zoragarriak) badaitekeela demostratzea ere Juan ebanjelariak ondorioztatu zuena Jesusen izaeraz.

Roman Garmendia